# Amaia antzokia

***Urtarrila-Martxoa*** 2015
*Enero-Marzo*

Antzerkia
Haur-antzerkia
Musika
Dantza
Opera



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Laguntzailea:
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

# Egitaraua
*programa*

## **Urtarrila** / Enero

| | | |
|---|---|---|
| 18 | **Arrastoak** | Antzerkia |
| 24 | **Kixote** | Haur antzerkia |

## **Otsaila** / Febrero

| | | |
|---|---|---|
| 04 | **Debagoieneko piano kontzertua** | Musika |
| 13 | **Arrasate Musikaleko ikasleen inauterietako kontzertua** | Musika |
| 15 | **De cuerpo presente** | Antzerkia |
| 17 | **Magiklown** | Pailasoak |
| 22 | **Euskadi Brass Ensemble eta Kirmen Uribe** | Musika |
| 28 | **On egin** | haur antzerkia |

## **Martxoa** / Marzo

| | | |
|---|---|---|
| 07 | **Itzalak - Txoriak** | Dantza |
| 15 | **Erdibana** | Antzerkia |
| 21 | **Opera abeslaria** | Haur Antzerkia |
| 28 | **Tosca** | Opera |

**Urtarrila** Enero

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | | |

**Otsaila** Febrero

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | |

**Martxoa** Marzo

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | 31 | | | | | |

**Egitarau honek aldaketak izan ditzake** • Esta programación puede sufrir modificaciones

**Urtarrila** / Enero

**Domeka**/ Domingo

19:30 Euskaraz 10

# 18

## Antzekia

# Arrastoak

**Taldea:** Dejabu panpin laborategia

Hamlet, gaur eta hemen. Hamlet antzerkien antzerkia da. Garai bakoitzak bere irakurketa behartzen du. Argi eta bizi, Shakespearek munduaren eromena marrazten du. Politikan oinarritzen da obraren ekintza: gezurra, jukutria, kalkulua, konplota, diru gosea, hitza hitz ala hitza jan. Baina erabakia ez da ekintza, eta auzi dena ez da justizia noski... hor da auzia. "Errautsak" ikuskizunaren ondoren, Artedrama, Dejabu eta Le Petit Théâtre de Pain taldeek Shakespearen obra gureganatzen dute, egungo gizartearen kezka, arazo eta ezaugarriekin. Xabier Mendigurenek adaptazioa izenpetzen du. Hamlet, gurea...

*Hamlet, hoy y aquí. Hamlet es el teatro de las obras teatrales. Cada época hace su lectura. Claramente y con agilidad, Shakespeare dibuja la locura del mundo. La acción de la obra está basada en la política: la mentira, la traición, el cálculo, el complot, la avaricia, el cumplimiento o el incumplimiento de la palabra. Pero la determinación no es la acción, y lo que es litigio no es justicia… he ahí el quid de la cuestión. Tras el espectáculo de "Errautsak", Artedrama, Dejabu y Le Petit Théâtre asumimos la obra de Shakespeare, con las preocupaciones, problemas y características de la sociedad actual. Xavier Mendiguren firma la adaptación. Nuestro Hamlet…*



# 24 Urtarrila / Enero

**Larunbata** / *Sábado*

17:00

€ 5

*Haur antzerkia*

# Kixote

**Taldea:** Markeliñe

Kixote edo Santxoren zorabioa. Beste ezer baino lehen, Cervantesen eleberriko pertsonaia arketipoetan oinarritutako adiskidetasun istorioa da. Testurik gabeko ikuskizuna, bi emakume antzezlerentzat eta trapezioan ari den hirugarren batentzat egina. Formatu ertaina, familia osoarentzat eta 5 urtetik gorako umeentzat. Antzezleak, Markeliñeren mugimendu eta sorkuntza lanean jada beteranoak diren Sandra F. Agirre eta Itziar Fragua izango dira. Eurekin, Kixoteren irudi ameslaria den trapezista arituko da: Maitane Azpiroz.Ikuskizun honetan ez dugu Cervantesen eleberria kontatu nahi. Bere pertsonaia prototipikoak erabili nahi ditugu, ametsa eta errealitatea aurrez aurre jarriko dituen istorioa kontatzeko. Aza eta letxua artean, adiskidetasunean oinarritutako istorioa azalduko diguten bi arketipo.

*El desvanecimiento del Quijote o Sancho. Antes que nada, el personaje de la novela de Cervantes es una historia de amistad basada en arquetipos. Un espectáculo sin texto, realizado para dos actrices y para una tercera trapecista. Un formato medio, para toda la familia y para niñas y niños mayores de 5 años. Las actrices serán Sandra F. Agirre e Itziar Fragua ya veteranas en obras de movimiento y creación de Markeliñe. Con ellas actuará la trapecista soñadora de imágenes del Quijote: Maitane Azpiroz. En este espectáculo no pretendemos contar la novela de Cervantes. Queremos utilizar sus personajes prototipos, con el objeto de contar la historia que pondrá frente a frente el sueño y la realidad. Entre berzas y lechugas, dos arquetipos que nos mostrarán la historia basada en la amistad.*



**Otsaila** / *Febrero* 15

**Domeka** / *Domingo*

19:30 · Gazteleraz · 10 €

## *Antzerkia*

# De cuerpo presente
(una comedia de muerte)

**Taldea:** Glu Glu

Bat-bateko heriotza batek lehia paregabea eragingo du, espero zuten herentzia izan ez eta herentzia hura banatzeko lehian. Vicente Jiménez jaunaren oinordekoek, azkenik, dagokiena jaso ahal izango dute, aita, senarra, senar-ohia eta anaia hil eta gero. Haren ondoan bizitzea ez zen samurra izan ez eta berdina ere denontzat, baina orain esperantza bat ireki zaie, hilkutxan atsedena hartzen duenak egindako fortunaz lasai gozatu ahal izateko. Hildakoak ez zuen izaera onik eta zikoitza, esku-laburrekoa zen, agian inguruan zuen jendea ez zelako berak nahi bezalakoa. Baina ezusteko bat dago, hildakoa oraindik ez da joan. Eta bere hiletan bertan egongo da. Onuradunek ez dute ikusten ez entzuten, baina bera denean dago sartuta, hantxe bertan dago. Haren arimak ez du atseden hartzen.Haietako inork ez zuen espero herentzia, bera, desegin izana. Vicente jauna xahutzailea zen eta, gainera, ez zuen zorterik izan inbertsioetan. Zer-nolako ezustea eramango duten, eta Vicente jaunak ere bai. Ipurdiko ederra hartu eta gero, esperantza bat baino ez dute. Zoria, kiniela. Baina ados jarri beharra dute, eta hori oso korapilatsua da. Gai izango ote dira amore emateko pastelaren zatitxo bat lortzeko?

*Una muerte repentina desencadena una puja sin igual por el reparto de una herencia que no es lo que se espera. Los Herederos de D. Vicente Jiménez al fin van a poder recibir lo que les corresponde tras el fallecimiento de su padre, marido, ex-marido y hermano. La vida a su lado no fue fácil ni igual para todos, pero ahora, se abre una esperanza para poder disfrutar con tranquilidad la fortuna amasada por el que descansa en el ataúd. El fallecido no tenía buen carácter y era tacaño, quizás porque la gente que le rodeaba no era como él deseaba. Pero hay una sorpresa, el muerto todavía no se ha ido. Y va a asistir a su propio funeral. Los beneficiarios no lo ven ni lo oyen, pero él se sigue metiendo en todo, sigue estando presente. Su alma no descansa. Lo que no espera ninguno de ellos es que la herencia, como tal, se ha diluido. D. Vicente era un derrochador y además no tuvo suerte con las inversiones. Menuda sorpresa se van a llevar, y D. Vicente también. Después de la desilusión, solo les queda una esperanza. El azar, la quiniela. Pero se tienen que poner de acuerdo, y eso resulta muy complicado. ¿Serán capaces de ceder para poder llevarse un trocito de la tarta?*



# 22 Otsaila / Febrero

**Domeka** / *Domingo*

*19:00*

## *Musika*

# Euskadi Brass Ensemble eta Kirmen Uribe

Euskadi Brass kultura proiektu bat da, helburu duena Euskal Herriko ikasleak amateurrak eta profesionalak garatu daitezen laguntzea, metalezko instrumentuen bidez garatzekoak, prestakuntza topaketez, kultura tailerrez eta kontzertuez. Gure inguruko profesional handiez, ikasleez eta amateurrez kontatzeko aukera dugu, eta horrek aukera ematen digu gure proiektua familia honen kide garenontzat beharrezkoa den topaleku bat eta bizikidetza leku bat edukitzeko. Kontzertu honetan Kirmen Uribe idazle eta poetak parte hartuko du, musika eta literatura uztartuz.

*Euskadi Brass es un proyecto cultural que tiene como fin ayudar al desarrollo de los estudiantes, amateurs y profesionales de Euskal Herria por medio de los instrumentos de metal, con encuentros formativos, talleres culturales y conciertos. La posibilidad de contar con grandes profesionales de nuestro entorno, estudiantes y amateurs, hace que nuestro proyecto sea un punto de encuentro y convivencia necesario para los que formamos parte de esta familia. Para este concierto se contará con la presencia del poeta y escritor Kirmen Uribe aunando, de esta forma, música y literatura.*



**Otsaila** / *Febrero*

**Zapatua** / *Sábado*

# 28

17:00 · Euskaraz · € 5

## *Haur antzerkia*

# On egin

**Taldea:** Borobil

Txori hori batek munduko errezeta guztiak lapurtu zituenetik inork ezin du sukaldean aritu. Jendeak, ordutik, ireki diren milaka Amonioburgerretan saltzen diren hanburgesak soilik jaten ditu. Juan Mari sukaldaria da. Bere jatetxea ez doa ondo. Zorrak ordaintzen ez baditu, bankuak jatetxea kenduko dio. Bere bi seme-alabek, Anderrek eta Gretak, lagun batekin apustua egingo dute. San Jamas basora joan eta lekuari buruzko esamesak gezurrak direla frogatzeko. Diotenez, basoan karameluzko sagarrak ematen dituen zuhaitz bat dago, eta dastatzen dituena betiko desagertzen da. Ander eta Greta basoan galduko dira. Anderrek txori hori baten txioka errepikatuko du, eta txoria dagoen arbolak, karameluzko sagarrak emango ditu. Anderrek, goseak akabatzen, bat jango du. Lurra ireki egingo da eta irentsi egingo du. Gretak, beste sagar bat dastatu eta bera ere lurrak irentsiko du…

*Desde que un pájaro amarillo robó todas las recetas del mundo nadie puede cocinar. Desde entonces, la gente solamente come las hamburguesas que se venden en los miles de Amonioburger que se han abierto. Juan Mari es cocinero. Su restaurante no va bien. Si no paga las deudas, el banco le quitará el restaurante. Sus dos hijos, Ander y Greta, realizarán una apuesta con un amigo. Irán al bosque de San Jamás para probar que las habladurías relativas al lugar son mentiras. Según dicen en el bosque existe un árbol que da manzanas de caramelo, y quien lo degusta desaparece para siempre. Ander y Greta se perderán en el bosque. Ander repetirá el canto de un pájaro amarillo, y el árbol donde se encuentra el pájaro dará manzanas de caramelo. Ander, que está muerto de hambre, comerá una. Se abrirá la tierra y lo tragará. Greta degustará otra manzana y también será tragada por la tierra.*



# 07 Martxoa / Marzo

Zapatua/ Sábado

19:30 — € 10

## Dantza

# Itzalak - Txoriak

**Taldea:** Dantzaz

Bi euskal musikari, nazioartean ezagunak eta aitortuak, Dantzaz Konpainiaren ekoizpen honetan batzen dira, eta elkarte horretan bi koreografo ezagun sartzen dira: Paolo Mohovich eta Josu Mujika. ITZALAK, lehenengo proposamenak, Arriaga eta Mohovich elkartzen ditu, argia eta itzalarekin jolastuz, gorteko amodiozko harremanak taularatuz, minué hizkuntza garaikidean berridatziz. Argiak eta itzalak harremanetan, musikarekin hasten diren harremanak, gure euskal konpositore handia Arriagaren musika ederrarekin bustitako amodioa. TXORIAK, Josu Mujikaren piezak Mikel Laboaren unibertsoa arakatzen du: askatasuna, osasun mentala, erotasuna, bes¬tearekiko harremanak...,Iñaki Salvador-ek egindako soinu pieza bat, Mikel Laboaren kanturik esanguratsuenak, ikusleak hunkitu eta harrapatzeko. ITZALAK/TXORIAK mota guztietako publikora eraman nahi du dantza garaikidea, mugimenduaren musikaltasunarekin eta dantzaren zirrararekin seduzitu nahi du publikoa. Unibertsalak bihurtu diren hemengo musikariak, Europa osoko dantzariekin eta Italia eta Euskal Herriko koreografoekin elkarturik. Hain urrun? Hain gertu.

*Dos músicos vascos, conocidos y reconocidos universalmente, se dan la mano en esta producción de Dantzaz Konpainia que reúne también a dos reconocidos coreógrafos: Paolo Mohovich y Josu Mujika. ITZALAK, la primera propuesta, reúne a Arriaga y a Mohovich, jugando con la luz y la sombra, escenificando las relaciones amorosas de la corte mediante la danza, reescribiendo el minué con lenguaje contemporáneo. Luces y sombras en las re¬laciones, relaciones que arrancan con la música, juegos de amor bañados en la preciosista música de Arriaga, nuestro gran compositor vasco. TXORIAK, la pieza de Josu Mujika, se adentra en el universo de Mikel Laboa: la libertad, la cordura y la locura (Mikel Laboa era médico psiquiatra), las relaciones con el otro..., en un archivo sonoro compilado por Iñaki Salvador, incluyendo temas referenciales de Laboa que consiguen emocionar y cautivar al espectador. ITZALAK/TXORIAK quiere acercar la danza contemporánea a todo tipo de públicos, cautivarlos con la musicalidad del movimiento, con la emoción de la danza. Músicos de aquí que se han convertido en universales, reunidos con bailarines venidos de todo Europa, en coreografías que llegan desde Euskal Herria y desde Italia. ¿Tan lejos? No, tan cerca*



**Martxoa** / *Marzo*
**Domeka**/ *Domingo*

19:30 · Euskaraz · € 10

# 15

## *Antzerkia*

# Erdibana

**Taldea:** Txalo

Ama bat jada urteetan aurrera doana, gripearekin eta enbolia batekin, baina hiltzeko gogo handirik gabe. Seme bat du, 45 urtekoa, hondoratzen ari den enpresa baten jabea.  Amak 38 urteko beste seme bat zaintzen du, egunero bainatzen du, orraztu eta ia-ia baita hil ere. Jehova testigu batek bisitatzen ditu asteazkenero, kontu libreta asko dauka baina aurreztuta oso diru gutxi.  Etxe baten jabe dira, baina saldu beharrean egongo dira eta gauerdian, hitz egiten ari direla, konta ezin diren sekretuak aterako dira. Komedia eder eta berezi honek algara artean pasaraziko digu antzez lanak irauten duen denbora  guztia.

*Una madre entrada en años, con gripe y una embolia, pero con pocas ganas de morirse. Tiene un hijo de 45 años que, a su vez, es dueño de una empresa que se hunde. Ella cuida de otro hijo de 38 años al que baña, peina y está a punto de matar diariamente. Recibe todos los miércoles la visita de un testigo de Jehová, tiene muchas cuentas de ahorro pero poco dinero ahorrado. Son dueños de una vivienda, pero se encuentran en la obligación de venderla y en la medianoche, irán surgiendo en la conversación secretos que no pueden ser contados. Con esta bella y especial comedia pasaremosr entre carcajadas todo lo que dure la obra.*



21 **Martxoa** / *Marzo*

**Larunbata** / *Sábado*

17:00 Euskaraz € 5

*Haur antzerkia*

# Opera Abeslaria

**Taldea:** Deabru Beltzak

August Strindberg autorearen `Tabako lehortegiko sekretuak´ ipuinean oinarriturik, Hannah-ak opera abeslari baten arrakasta eta hondamendia kontatzen ditu. Era ludikoan eta entretenigarrian, publikoa operaren mundura hurbiltzen du, eta, era berean, harrokeriaren inguruko hausnarketa proposatu. Hori dena musika eta antzerkia ederki uztartzen dituen ikuskizun batean, ñabarduraz beteriko errepertorio musikal aberatsa eskaintzen duena. Idoia Somoza Vegas sopranoak, Katrin Schlegel aktoreak eta Marta Galleguillos piano-jotzaileak kontatu eta kantatzen digute istorio hau, antzerkia dena, ipuina dena eta, batez ere, musika dena.

*Basado en el cuento de Ausgut Strindberg `Los secretos del secadero de tabaco´, Hannah narra la gloria y el ocaso en la carrera de una cantante de ópera. De manera lúdica y entretenida, supone un acercamiento del público al mundo de la ópera y propone asimismo una reflexión sobre la vanidad. Todo ello en un espectáculo que fusiona a la perfección música y teatro, presentando un rico repertorio musical lleno de matices. Una soprano Idoia Somoza Vegas, un actriz, Katrin Schlegel y una pianista, Marta Galleguillos, cuentan y cantan esta historia que es teatro, que es cuento y sobre todo, música.*



## Martxoa / *Marzo*

**Larunbata** / *Sábado*

*20:00*

# 28

## *Opera*

# Tosca

**Produkzioa:** Ozenki eta Asociación Lírica Sasibill

Tosca hiru ekitaldiko opera bat da, Giacomo Puccini-ren musikarekin eta Luigi Illica eta Giussepe Giacosa-ren libretoarekin (italieraz egina). Erroman estreinatu zuten, arrakastaz, 1900go urtarrilaren 14an, Costanzi antzokian. Obraren testua drama bizi batean oinarrituta dago, La Tosca, Victorren Sardou-rena, 1887an aurkeztua Parisen, Sarah Bernhardt aktoresa handiak ziharduen antzokian. Tosca opera da italiar errepertorio veristaren esanguratsuena da, duen bizitasun dramatikoarengatik eta errepertorioaren aria ederrenetakoa edukitzeagatik. Argumentuak amodioa, azpikeria, indarkeria, pasioa eta heriotza bateratzen ditu. Madama Butterfly eta La Bohéme operekin batera, Puccini-ren opera ezagunen hirukotea osatzen du. Musikari dagokionez, orain arte Puccini-k garatu duen estiloan mantentzen da obra: musika diskurtsoarekin jarraitzea, aria batek edo bik hautsia. Eszenarik txundigarrienak dira lehen ekitaldiko bukaerako Te Deum eta bi aria hauek, Vissi d'arte (Tosca-rentzat) eta E lucevan le stelle (Mariorentzat). Dramari dagokionez, bigarren ekitaldia da Puccini-ren beste obra batek berdindu ez duen bizitasun batekoa. Erroman gertatzen da, 1800go ekainaren 14an, Napoleon-ek austriarrak mendean hartzen dituenean, Marengo-ko borrokan Michael Von Melas jeneralaren agindupean.

*Tosca es una ópera en tres actos, con música de Giacomo Puccini y libreto en italiano de Luigi Illica y Giussepe Giacosa. Fue estrenada con éxito en Roma, el 14 de enero de 1900, en el Teatro Costanzi. El texto de la obra está basado en un intenso drama, La Tosca, de Victoreen Sardou, presentado en París en 1887, donde actuaba la gran actriz Sarah Bernhardt. Tosca es considerada una de las óperas más representativas del repertorio verista italiano, por su intensidad dramática y por contener algunas de las arias más bellas del repertorio. El argumento combina amor, intriga, violencia, pasión y muerte. Junto a Madama Butterfly y La Bohème, integra el trío de óperas más conocidas de Puccini. Musicalmente, la obra se mantiene en el estilo desarrollado por Puccini hasta el momento: continuidad del discurso musical, roto apenas por una o dos arias. Las escenas más impactantes son el Te Deum del final del primer acto, y las arias Vissi d'arte (para Tosca) y E lucevan le stelle (para Mario). Dramáticamente, el segundo acto es de una intensidad inigualada por otra obra de Puccini. La acción transcurre en Roma, el 14 de junio de 1800, cuando Napoleón vence a los austriacos al mando del general Michael Von Melas en la batalla de Marengo.*



# Amaia antzokia

***Urtarrila-Martxoa*** 2015
*Enero-Marzo*



Antzerkia
Haur-antzerkia
Musika
Dantza
Opera

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON